




UGAO-MIRABALLES



ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Urrezko hondoan dorre gorria, eskoian galdara baltz bat daukala.

DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de oro, una torre de gules, adiestrada de una caldera de sable.

AITAMEN HISTORIKOA

Bizkaiko uria; Zeberioeko eskualdeko zergapeko nekazariak eta Arrigorriaga, Olabarieta, Zaratamo eta Arrankudiagako eleizateak uria sortzeko egin eben eskabidearen bidez sortu zan. Uriotakoak mesfidati egozan; Bilbao garatuz joian, eta Bilbao zan itsasadarreko ubidean eta Bizkaiko itsasertza eta Gaztela batzen zituen bideetan merkataritzan jardun eikean bakarra. Gauzak holan, Juan infanteari, Bizkaiko jaunari, uri-pribilegioa eskatzea erabaki eben. Bilbotarrak pribilegio barriaren guztiz kontrakoak ziran; haren ustez hori Diego López de Harok Bilbori emon eutsan eta ostean Bizkaiko hainbat jaunek berretsi eben pribilegioaren kontra joian. Horren arabera, Bilbotik hasi, hain zuzen be, San Anton zubitik hasi eta Aretaraino ezin eitekean ogirik, burdinik ezta beste edozelango salgairik be salerosi.

1373an hasi eta 1377ra arte iraun eban uri barria zala-eta Bilbogaz euken auziak. Juan Antonio de Castro Donatok, Bizkaiko begiraleak, obispo, kantziler, komendadore, alferrez eta lege arloko doktoreakaz aztertu eban gaia, eta, azken baten, lur lauho aitonen semeen aldeko epaia emon eban. Holanba, Juan infanteak pribilegioa emon eutsan 1375eko martiaren 4an; uri barriaren pribilegioa Almarazanen, Soriako herri baten, emon zan.



RESEÑA HISTÓRICA

Villa vizcaína creada a petición de los labradores censuarios de la comarca de Zeberio y de las anteiglesias de Arrigorriaga, Olabarieta, Zarátamo y Arrankudiaga que, recelosos del progreso y privilegios de exclusividad de Bilbao para traficar sobre el canal de la ría y en los caminos terrestres que unían Castilla con la costa vizcaína, acordaron solicitar al infante don Juan, señor de Bizkaia, un privilegio de fundación de villa. Los vecinos de Bilbao se opusieron radicalmente a ello, alegando los privilegios concedidos por Diego López de Haro y confirmados por varios señores de Bizkaia, siendo uno de ellos el que no hubiera comercio alguno de pan, hierro y otras mercancías desde el puente de San Antón (Bilbao) hasta Areta.

Desde 1373 a 1375 duró el pleito con Bilbao para la creación de Miraballes. D. Juan Antonio de Castro Donato, veedor de Bizkaia, realizó las pesquisas pertinentes y, aconsejado por obispos, cancilleres, comendadores, alféreces y doctores en leyes, resolvió el caso a favor del hijosdalgo de la tierra llana. En consecuencia, el infante Don Juan expidió el privilegio el 4 de marzo de 1375, en Almazán (Soria).